

**ZAIN EI ZAITUT**

Zain ei zaitut, laboran;  
galdua dozu zerbait?  
Errazoiz diñozu goizez:  
«Egoak ostu nunbait».

Egoak, bai, eutzun ostu  
arimako labore;  
egoak lapurtu eutzun  
len zeukan lan-adore.

Goizero auts-arte loian  
diño ak: «Ez, ez; nik ez».  
Baiña zu ezpai lanbrotan  
zagokit biotz otzez.

Egoak eroan eutzun  
—amarrutsu, setati—  
ibar apalean zeukan  
laborearen erdi.

Egia latz ta labio,  
egoak etsi-eziña;  
gosepean giza-errai,  
neke au ezta ariña.

Apoa orain koaka  
dozu —ixekaz ete?—,  
auzo zingiran igeri;  
diño: «Olan noiz arte?»

Eta zuk: «Ezpai-aska dot  
arrezkero biotza;  
ego (bardin: gizon orrek),  
ostu daustak bizitza».

Zain ei zaitut, laborari;  
galdua dozu zerbait?  
—«Goizero noa solora,  
samiñak ara darrait».

**ERRUKARRIA**

Ez *intzan* lurreko;  
nungoa ete intzan?

Ur bako iturri legez  
uts ta erdoiz don ao;  
matrail biak gorri,  
esku biak txao.

Begi zabal orreik  
nini oztin dozan,  
ta argi ari mean  
begituak dantzan.

Urrin-laztan leuna  
itzak yoek gartu:  
ilbizi samurra,  
odei zuri mosu.

Ire oin-min nintzan  
—ego bariko oiñak—;  
baratz ortan nai nik  
ureztatu lorak.

Baiña azketsi, maite,  
atzo arratsean,  
ire albotik, ai!,  
iges bai nintzean.

Oi! Begi jostari  
 zerbait az azalez;  
 bertara ezkeru,  
 barrutik ezerez.

Neskatx koskortxo!  
 —ba-dakit atzotik—  
 azala don eder,  
 baiña barrua utsik

Gerora sarri aut  
 jolaska oartu;  
 alan be beti aut  
 ziñez errukitu.

Ez intzan lurreko;  
 nungoa ete intzan?

### LUR - SABELA

Lur azalean nabilkizu  
 gaur oiñazez, biar pozik;  
 lurrak, orde, beti adeitsu  
 ez dauka begitu miñik.

Zabar antzera, gau ta egun  
 bere igaliak dauz zaintzen;  
 ezta guraso oberik iñoiz  
 errai-umeak babesten.

Landara bat gura ezkeru,  
 zeure dozu baraztia;  
 sagar bat nai baldin ba'dozu,  
 zeure dozu sagastia.

Larrosa zuri bat artzeko  
 luzatu zeure eskua;  
 lurrak ez dautzu zikoiztuko  
 beraren sabel zitua.

Zer jan, zerez jantzi jarduki,  
 ez, etzaite iñoiz kezkatu:  
 barrenean dau su-labea,  
 gar goritan oparotsu.

Ona aren gogamen bakarra:  
 zitu barriak ernazo.  
 Zer orrek uts-emonez gero,  
 mundu jaurguan zer jazo?

Ez kezkarik, barriz diñotzut.  
 Ez dakusula bizirik?  
 Geroko madari mardula  
 lurrean datza oraindik.

\* \* \*

Biotz: sugartu zuk be barrua,  
 geroaz burutapentsu:  
 lupetz ospetan estalduta  
 aneika margo dituzu.

### UDA ZIGORKARIA

Zemai kiskal oi dokan,  
 uda zigorkari:  
 gutaz, egun bederen,  
 erruki izan adi.

Suzko sasta eztenak  
 jaurtzen az zangarra  
 ta gori-gori daukak  
 jzadi bularra.